



Tokiko produktuen kanpaina berriaren aurkezpenaren harira

**UAGA-K ETA EROSKI-K HITZARMEN BAT SINATU
DUTE ARABAKO NEKAZAL PRODUKTUAK
SUSTATZEKO ETA GARATZEKO**

- Hitzarmenaren helburua da Arabako labore motak ugaritzea eta nekazaritzako zenbait produktutan berrikuntza eremu berriak esploratzea osasunaren eta jasangarritasunaren ikuspegitik
- Hitzarmena gaur berretsi dute Arabako sasoiko produktuei laguntzeko ekitaldi batean. Bertan izan da Foru Aldundiko Nekazaritza diputatua eta Eusko Jaurlaritzako Elikagai Politikako zuzendaria

Gasteiz, 2019ko azaroaren 15a.- Gaur goizean sinatu dute hitzarmena [Arabako Nekazarien Elkarteak](#) (UAGA) eta [EROSKI](#)k Gasteizko EROSKI Boulevarden, Arabako nekazal produktuak garatzeko eta sustatzeko asmoz.

UAGAk kontsumo eredu berri baten alde egiten du, tokiko ekonomia sustatuz eta familiako nekazaritza eredu bat bultzatuz. Horrek, era berean, lehen sektoreari eusten lagunduko du, garapen jasangarria indartzen eta bioaniztasuna gordetzen; gainera, kontsumoak ingurumenean duen eragina gutxituko du.

Bi entitateek lortu duten hitzarmenarekin, Arabako labore motak ugarituko dituzte, eta berrikuntza eremu berriak esploratuko dituzte nekazaritzako produktu batzuetan, osasunaren eta iraunkortasunaren ikuspegitik. Hitzarmena berretsi egin dute Javier Torrek, Arabako Nekazarien Elkarteko presidentea, eta Asun Bastidak, EROSKIko Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.

UAGArekin ustez, EROSKIrekin hitzarmen hau sinatuta, beste pauso bat eman dute Arabako nekazarien eta abeltzainen interesak defendatzeko helburuan. *"EROSKIrekin aliantza hau egitea oso baikorra da guretzat, merkatua gero eta lehiakorragoa eta globalagoa baita. Harreman esparru bat egin behar dugu beste erakunde batzuekin, elkarri lagunduta indartzeko eta gure helburuak erdiesteko"*, azaldu du Javier Torre UAGAk presidentea.

EROSKI hitza eman du Arabako nekazarien eta abeltzainen produktuak behar bezala identifikatuko dituela bere dendetan, eta gizarteari ezagutaraziko dizkiola bi entitateek elkarrekin dituzten proiektu guztiak. *"Gure denden ingurunean elikagaiak merkaturatzeko dugun konpromisoaren harira dator EROSKI eta elkarte honek egindako hitzarmena; horrela, lehen sektore jasangarriago bat bultzatuko dugu, eta ekoizpen ehunaren dibertsitate maila handiari eutsiko diogu"*, esan du Asun Bastida EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendari komertzialak.



Sasoiko eta tokian tokiko produktuen kanpaina aurkezten

Gaur goizean sinatu dute bi entitateek lankidetzaz hitzarmena, EROSKI Boulevard Merkataritza Zentroan duen hipermerkatuan. Arabako sasoioko produktuak sustatzeko kanpaina berriak "Arabako Bitxiak" du izena.

Tokiko kanpaina honetan, hor izan dira Arabako Foru Aldundiko Nekazaritza diputatua, Eduardo Aguinaco, eta Eusko Jaurlaritzako Elikagai Politikako zuzendaria, Peli Manterola.

Ekitaldian, UAGAk presidenteak Arabako Nekazarien Elkartearen misioa azaldu du. *"Gure gogoak Arabako eta Trebiñuko nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzeko lehikortasuna hobetzea, nola eta landa ingurunearen eta nekazaritzaren jasangarritasunean lagunduta, herriak mantenduta, diru sarrera duinak defendatuta eta, azken batean, jendearen bizi kalitatea hobetzen lagunduta"*, esan du Javier Torrek.

EROSKIren Tokiko Produktuetarako zuzendariak, berriz, EROSKI Arabako ekoizleei laguntzeko duen eginkizuna nabarmendu du, eta Arabako lau produktu izarrak aipatu ditu: lekaleak, patata, Añanako gatza eta ardoa. *"Hitzarmen honen bitartez, lurralde honetako ekoizpena eta produktuen berrikuntza bultzatu nahi ditugu. EROSKI In, kalitaterik oneneko produktuak eskaini nahi dizkiegu kontsumitzaileei; horregatik saltzen ditugu Arabako patata eta lekaleak Eusko Label ziurtagiriarekin"*, gogorarazi du Bastidak.

Arabako Nekazarien Elkarteari buruz

Arabako Nekazarien Elkartea erakunde bakarra da Araban, Nekazaritzako profesionalak biltzen dituena. 1977an eratu zen, eta gaur egun nekazaritzako eta abeltzaintzako 1.230 ustiatzeko osatzen dute; gehienak familiako ustiatzeko txiki eta ertainak.

Haren helburu nagusia da nekazarien eta abeltzainen interesak defendatzea, eta sektoreko bitartekari printzipala da administrazioen eta gizarte eragile askotarikoen artean. Hala, lehen sektorearen iraunkortasunaren eta jasangarritasunaren alde dihardu, enplegua sorrarazteko eta herriari bizirik eusteko. Erakunde independente demokratiko eta asanblearioa da; ez da alderdi politiko jakin batekoa, eta ez du irabazi asmorik ere.



EROSKIri buruz

Kooperatiba izaera duen lehen banatzailea da EROSKI, eta liderra Euskal Autonomia Erkidegoko elikagaien banaketan. 404 saltokiko sare komertziala du autonomia erkidegoan; besteren artean, hipermerkatu eta supermerkatu propio nahiz frankiziatuak, eta dibertsifikazio dendak, baita on line supermerkatua ere. Hala berean, banatzaile bakarra da erosketak EAEko edozein etxetara eraman ditzakeena. EROSKI Clubek 770.000 Bezero Bazkide ditu erkidegoan.

EAEko sektore ekonomiko guztiak aintzat hartuta, EROSKI 1.900 hornitzaileekin ari da lanean, eta 650 milioi eurotik gorako erosketak egiten dizkie urtero.

Harremanetarako:

UAGA Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel.: 945 260 533 www.uaga.eus	EROSKI Komunikazio Korporatiboko zuzendaria Tel: 946 211 214 comunicacion@eroski.es Prentsa bulegoa - Consejeros del Norte Joana G. Landazabal / Edurne Izquierdo Tel: 944 158 642
--	--